



Balioa izango duen diskurtso bakarra hizlariak bertan eskainiko duena izango da.  
El único discurso válido será el pronunciado por el orador o la oradora en el acto.

**BAKARTXO TEJERIA**  
**Bilbao, 2024ko apirilaren 19a**

Arratsalde on!

Kanpainaren azken orduak. Azken mitina. Arenala jendez eta ikurrinez beteta, hau ikusita jakin badakit irabaziko dugula. Igandean PNV izango da lehen indarra, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ere bai! Euskadin irabaziko dugu, eta zuei esker izango da !

Emozioa eta harrotasuna sentitzen ditut. Emozioa, zuen bultzadagatik, zuen indarragatik eta zuen konpromisoagatik. Hemen da PNVren indar berria. Talderik onena izaten jarraitzen dugu. Euzko Alderdi Jeltzalea gara eta harro nago!

Emozioa sentitzen dut gure aurreko guztiak gogoratzean. Beren lanarekin eta ahaleginarekin herri hau altxa duten guztiak. Gure aiton-amonak, gure gurasoak, dagoeneko gurekin ez ditugun alderdikide eta lagunak. Haiengandik ikasi dugu herri hau maitatzen, bere askatasunaren alde lan egin eta borrokatzen. Eta orain guk jarraituko dugu bidea!

Eta harro. Harro nago, herri hau gidatu duen alderdiko kide izateaz. Euskadin sinesten duen, Euskadi maite duen eta Euskadin konfiantza duen Gipuzkoako zerrendaburu izateaz. Gurea, Euskadi delako, besterik ez. Euskadi eta herri hau osatzen dugun herritarrak dira gure lehenetasuna. Euskadi eta euskal herritarren ongizatea eta askatasuna dugu helburu.

Abertzalea izatea aberria maitatzea da, zure Herria maitatzea eta bertan bizi diren pertsonak maitatzea da. Abertzale izatea emakume eta gizon libreek osatutako Euskadi aske bat lortzeko borrokatzea da. Eta Euzko Alderdi Jeltzalea horretarako sortu zen. Euskotarren aberria, Euskadi da.

Emozioa, harrotasuna eta erantzukizuna sentitzen ditut. Erantzukizuna herri honetan bizi diren guztiei ongizatea bermatuko dien Euskadi oparoa utzi nahi diegulako. Euskadi justu eta solidarioa, inor atzean uzten ez duena. Giza eskubideak defendatzen dituen Euskadi. Euskadi askea eta bere etorkizunaren jabe den Herria. Eta hori egin dezakeen alderdi bakarra, Euzko Alderdi Jeltzalea da!

Asko aurreratu dugu, orain dena arriskuan jartzeko. Ezin dugu herri honen etorkizuna denari ezetz esan eta bidean harriak jarri dituztenen esku utzi. Gure aurrekoei zor diegulako, eta batez ere, gure ondorengoei.

Igandean asko dugu jokoan. Euskadik aurrera egiten jarraitzea edo atzera egitea. Demokrazia eta askatasuna edo inposaketa eta kontrolaren artean aukeratu behar da. PNVk gobernatzea nahi baduzu, Imanol Pradales lehendakari izatea nahi baduzu, PNV bozkatu behar da. Izan kritikoa, izan exigentea, baina egin bat Euskadi aurrera eramango duen alderdiarekin!

Eman botoa Euzko Alderdi Jeltzaleari !Gora Euskadi askatuta!